

## B32

## Itai lelo, ibai lelo...

B32 eta B33 poemek bertso-lerroen segida bakarra osatzen dute, itxura batean, eskuizkribuan (gure B26-B30 poemak ere bakarra balira bezala agertzen diren legez), orrian duten disposizioari kasu eginez gero. Distikoen errimari begiratuko bagenio, hiru poema bereiziko genituzke (-oa, -ean eta -ia errimekin, hurrenez hurren). Azkenik, errimaz gain edukia eta poemetako zenbait elementu kontuan hartuta, bi poema bereizi ditugu. Lehenengo hau (B32) ondo ulertuko litzateke B33ri lotuta ere, lelo moduan edo, baina uste dugu B33: 1-2 bertso-lerroak (*Oereanic jagui ninçan / astelen goicean*) poema-hasierako elementu tipikoa direla eta, hortaz, beste poema baten hasiera markatzen dutela.

*Itai lelo, ibai lelo* ezagunaren gainean oinarrituriko koplak honen helburua *Belagai(a) Butroecoa* goraipatzea da, baina, zoritxarrez, ez dakigu andre hori nor zen, eta ezin dugu jakin, hortaz, amodio-poema soil bat den ala, butroetarren leinuaren garrantzia kontuan izanik, bestelako inplikaziorik duen.

[1205r]      Itai lelo, ibai lelo,  
                   echean aray leloa.<sup>1</sup>  
                   Damarica<sup>2</sup> dan galantaena  
                   Belagai<sup>3</sup> Butroecoa;<sup>4</sup>  
                   Belagaya dioçae<sup>5</sup> ta

5

<sup>1</sup> *Itai lelo, ibai lelo, / echean aray leloa*: Dirudienez, esanahi zehatzik gabeko leloa da. Eskuizkribuko beste leku batean ere bada honen aldaera bat: *Ihar, ihar, lelorean lelo, / ihar, ihar lelorean* (B6: 1-2). *OEHN* (s.v. *lelo*), beste hauek bildu dira: “*Lelo lirelo zaraileroba / yazoegia ninzan / aurten erua / ai joat gabiraia / astor usua / lelo lirelo zaraileroba* (Cantar de Perucho, 1536). *TAV* 3.1.15. *Etai lelari bai lelo, leloa zarai leloa. / Heuskara da kanpora eta goazen oro danzara*. E 261 (v. tbn. 174). *Lelorelelo sara y leloa, / Bilbaon katigu dago Salinasgoa* (Cantar del conde de Salinas, c. 1566)”.

<sup>2</sup> *Damarica*: ‘damarik’; -rika atzizkiari buruz, cf. Portal *guiçonica, alegrerica, jarririca, jansirica, pobreçarica, yrtenica, arturica*. Eskuizkribuan hiru lekutan aurkitu dugu: *achaquiz arturica bisitea* (B15: 77), [...]*sigarica banendorren* (B30: 1), *Damarica dan galantaena* (B32: 3).

<sup>3</sup> *Belagai*: Ez dugu aurkitu ez *Belagai* ez *Belagaya* izenaren beste lekukotasunik. Aukera bat izan liteke *Bela* eta *Gaia* elkarturik izatea. *Vela* gizonezkoaren izena da Erdi Aroko Araban, eta interpretazio bat baino gehiago izan lezake hala euskaratik nola erromantzetik abiatuta; *Gaia* hala euskaratik nola latinetik abiatuta interpreta daiteke.

<sup>4</sup> *Butroecoa*: Butroetarren leinua, oinaztarren alderdikoa, XIV. mendeaz geroztik muxikatarrekin elkartu zen, eta garrantzitsua izan zen XV-XVI. mendeetan. Jatorria Bizkaian izan arren, Aramaioko jaun izan ziren XIV. mendeaz gero, eta Arabako Lautadan ere agertzen dira XVI-XVII. mendeetan.

<sup>5</sup> *dioçae*: ‘diotsote, esaten diote, esaten zaio’.

çorionean jaioa.

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Itai] hitz-hasierako Y- letra E- baten gainean idatzita dago. 6 çorionean] esk. *corionean*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B32 – Itai lelo, ibai lelo...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago